



## NOTA DE PRENSA

# ENKARTERRIETAKO MUSEOAK, ORAIN MENDE BATEKO EMAKUMEEN ERREALIDADE SOZIALAREN GANEKO ARGAZKI GEHIAGOGAZ OSATUKO DAU EULALIA ABAITUAREN ERAKUSKETEIA

- **“EULALIA ABAITUAREN EMAKUMEAK / MUJERES DE EULALIA ABAITUA”** erakusketea Abellanedara lekualdatu da, eta erakusketa-materialea bikoiztu egin da.
- **XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran emakume bizkaitarrei ateratako 70 argazki dira. 34 argazki Bizkaiko Batzar Nagusietako erakusketa-aretoan erakutsi ziran. Guztiak Bilboko Euskal Museoak itzi ditu. Erakusketea azaroaren 30era arte egongo da zabalik Enkarterrietako museoan.**
- **Eulalia Abaitua Allende-Salazar emakume handia izan zan, eta ez zan kikildu garai haretan egoan diskriminazioarengaitik, gehien gustetan jakona egin eta kaleko bizitzari berari argazkiak ateraz.**

*(Bilbon, 2021eko maiatzaren 20an).* Bizkaiko Batzar Nagusien Bilboko egoitzan lortutako arrakastaren ostean, “EULALIA ABAITUAREN EMAKUMEAK / MUJERES DE EULALIA ABAITUA” erakusketea Enkarterrietako Museora iritsiko da bihartik aurrera, eta ia bikoiztu egingo dau ikusi ahal izango dan argazki kopurua. Eulalia Abaitua Allende-Salazarrek, euskal argazkilaritzaren aitzindari handiak, hartutako emakumeen erretratuen argazki erakusketea azaroaren 30era arte egongo da zabalik Enkarterrietako museoan, Bilbon 1.500 lagunek baino gehiagok ikusi ostean.

Azkenik, Abellanedan dagon museoak argazkilari bilbotarrak XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako landa eta uri inguruko Bizkaian egindako 70 argazki batzen ditu. Bizkaiko Batzarretan sei astez ikusi ahal izan diran 34 argazkiak garai haretako emakumeen mundu gogorra testuinguruan jarten daben beste 36 argazkigaz osatzen dira, errealidade are zabalagoak erakutsiz. Irudi guztiak Bilboko Euskal Museoako Argazki Artxiboan gordetan diran erreprodukzioak dira, Maite Jiménez Ochoa de Aldak batuak.

Argazki zaharrek XXI eta XX. Mendeetan emakumeen munduaren zati bat islatzen dabe. Benetako agertokietan, euren jantzi eta lanbideakaz erretratuak izan diran emakumeak. Imajinau beharrik ez dagon mundu bat,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Bilbao  
Bizkaia **MUSEOAK**

emakume bilbotar honen lanari esker. Ingalaterran egindako egotaldi bati esker argazkigintzaren unibersoan murgildu ahal izan zan, eta bertan, argazkilaritzaren hastapenetan, lanbidea ezagutzeko aukerea izan eban.

Abaituaren familia Bizkaiko Batzar Nagusiei lotuta dago, Castor María Allende-Salazar Urkijo Bizkaiko Ahalduen Nagusiaren biloba izan zalako. Castor izan zan bonbardaketatik bizirik urten eban Gernikako Arbolea landatzea agindu ebana (haren argazki bat be badago). Bizkaira itzulita zaletu moduan murgildu zan argazkilaritzan eta ondare parebakoa itzi eban. Otaduik gogoratuazo dauen moduan *"garai haretan egoan diskriminazioaren aurrean kikildu barik"* bere begirada fotografikoa, lehen pausuak emoten ari zan Bilbo industrialetik hasi eta landa inguruko Bizkaira arteko persona, lanbide, egoera eta lekuen unibersoan finkatuz.

Bere lanaren parte handi batean, Abaituak gizarte maila guztietako emakumeak erretratu ebazan. Euskal argazkilaritzaren aitzindaria izan zan, jente gitxik egindako bidea egin ebalako; argazkiak, benetako erreportari grafikoa balitz bezala ateraten ebazan. Bere zuri-baltzeko irudiek baztarretan egoan mundu debaluaua, ahaztua eta ordura arte ikusezina eskaintzen dabe.

Maite Jiménez Ochoa de Alda erakusketaren komisarioaren ikerketa eta bilketa lanari esker, Bilboko Euskal Museoak Abaituak egindako 2.500 irudi ditu. Bizkaiko Batzar Nagusien Bilboko egoitzan gaur inaugurau dan erakusketarako aukeratutako 70 argazkiak Euskal Museoak 1990ean "Gure Aurreko Andrak/Mujeres Vascas de Ayer" erakusketan argitarau ebazan erreprodukzioen parte dira.

Bere argazki-lanen izenburuek –"Sardineras", "Conchita en Elorrio", "María Costa y Asunción / costureras", "La vieja de Mañaria", "Gitanas Santuchu" "Elorrio hilanderas / hermanas de Ubidea", "Lechera", "Lavanderas en las Arenas"...– emakume uniberso estereotipaua eskaintzen dabe, bere tituluek uniberso konplexuari justizia egiteko balio ez daben arren. Hautaketak emakume xumeak, beharginak, apaindura bakoak, baina berezko duintasun eta dotorezia handikoak batzen ditu. Garai haretan nagusi zan kode burges femeninoagaz kontrastea egiten daben irudiak.

Erakusketea Batzar Nagusien eta Euskal Museoaren arteko lankidetzari esker gauzatu ahal izan da. Azken horrek laga dau argazki bilduma hori martian eta apirilean Bilboko Erakusketa Aretoan erakusteko eta bihartik aurrera Abellanedako (Sopuerta) Enkarterrietako Museoan ikusi ahal izateko.



## NOTA DE PRENSA

# EL MUSEO DE LAS ENCARTACIONES COMPLETA LA EXPOSICIÓN DE EULALIA ABAITUA CON MÁS FOTOGRAFÍAS SOBRE LA REALIDAD SOCIAL DE LAS MUJERES HACE UN SIGLO

- La muestra "EULALIA ABAITUAREN EMAKUMEAK/ MUJERES DE EULALIA ABAITUA" se traslada a Abellaneda duplicando su material expositivo.
- Son 70 fotografías captadas a mujeres vizcainas a finales del siglo XIX y principios del XX, 34 instantáneas se mostraron en la sala de exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia. Todas ellas han sido cedidas por el Museo Vasco de Bilbao. La exposición estará abierta hasta el 30 de noviembre en el museo encartado.
- Eulalia Abaitua Allende-Salazar fue una gran mujer que no se dejó intimidar por la discriminación existente en esa época, haciendo lo que más le gustaba, fotografiar la vida misma en la calle.

(Bilbao, a 20 de mayo de 2021). Después de su éxito en la sede bilbaína de las Juntas Generales de Bizkaia, la exposición "EULALIA ABAITUAREN EMAKUMEAK/ MUJERES DE EULALIA ABAITUA" llega al Museo de Las Encartaciones a partir de mañana, y lo hace duplicando casi el número de fotografías expuestas. La muestra fotográfica de retratos de mujeres captadas por Eulalia Abaitua Allende-Salazar, la gran pionera de la fotografía vasca, estará abierta hasta el 30 de noviembre en el museo encartado después de que en Bilbao la exposición haya sido vista por más de 1.500 personas.

El museo de Abellaneda reúne finalmente 70 instantáneas que la fotógrafa bilbaína realizó en la Bizkaia rural y urbana de principios del siglo XIX e inicios del XX. Las 34 instantáneas expuestas durante seis semanas en la Cámara vizcaína se completan con otras 36 que contextualizan el duro mundo de la mujer en aquella época, mostrando realidades aún más amplias. Todas las imágenes son reproducciones cuyos originales se conservan en el Archivo Fotográfico del Museo Vasco de Bilbao, recopiladas por Maite Jiménez Ochoa de Alda.

Las viejas instantáneas reflejan parte del mundo femenino de hace más de



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Bilbao  
Bizkaia **MUSEOAK**

100 años. Mujeres que fueron retratadas con sus ropas y oficios en escenarios reales. Un mundo que no hace falta imaginarlo, gracias al trabajo de esta bilbaína que pudo conocer y adentrarse en el universo de la fotografía gracias a una estancia en Inglaterra, donde conoció el oficio en los inicios de la fotografía.

De vuelta a Bizkaia, Abaitua, cuya familia está ligada a las Juntas Generales de Bizkaia ya que fue nieta del Diputado General de Bizkaia Castor María Allende-Salazar Urkijo, quien mandó plantar el Árbol de Gernika que sobrevivió al bombardeo (se incluye una foto suya en la muestra), se embarcó en una actividad como aficionada con un legado de un peso único. *“Sin dejarse intimidar por la discriminación existente en esa época”*, como recordó la presidenta de las Juntas Generales, Ana Otadui, el día de su presentación, fijó su mirada fotográfica en un universo de personas, ocupaciones, situaciones y lugares que abarca desde el incipiente Bilbao industrial a la Bizkaia más rural.

En gran parte de su trabajo, Abaitua retrató a mujeres de toda condición social. Fue una pionera de la fotografía vasca porque se adelantó a explorar caminos poco frecuentados; sacaba fotografías como si fuera una auténtica reportera gráfica. Sus imágenes en blanco y negro ofrecen un mundo que estaba en los márgenes, devaluado, olvidado e invisible hasta ese momento.

Gracias al trabajo de investigación y recopilación de Maite Jiménez Ochoa de Alda, comisaria de la muestra, el Museo Vasco de Bilbao cuenta con 2.500 imágenes captadas por Abaitua. Las 70 instantáneas elegidas para la exposición forman parte de las reproducciones que el Museo Vasco publicó en 1990 en la exposición “Gure Aurreko Andrak / Mujeres Vascas de Ayer”.

El título de sus obras fotográficas - “Sardineras”, “Conchita en Elorrio”, “María Costa y Asunción / costureras”, “La vieja de Mañaria”, “Gitanas Santuchu” “Elorrio hilanderas / hermanas de Ubidea”, “Lechera”, “Lavanderas en las Arenas”... – ofrecen un universo femenino estereotipado, aunque sus títulos no sirven para hacer justicia del complejo universo que esconde cada imagen. La selección engloba mujeres modestas, laboriosas, sin perifollos, pero con un gran peso de dignidad y de elegancia natural, que contrastan con el código burgués femenino que imperaba en la época.

Esta exposición se ha podido llevar a cabo gracias a la colaboración entre las Juntas Generales y el Museo Vasco, quien ha cedido esta colección de fotografías para que se muestren durante los meses de marzo y abril en la Sala de Exposiciones de Bilbao y a partir de mañana se puedan contemplar en el Museo de Las Encartaciones en Abellaneda (Sopuerta).